

# hondo-hondotik

Iñigo Urkullu

(EAJko Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria)

## Eta nor da atxikimendu librearen beldur?

**O**rain egun batzuk, interesak Estatu espainiar osoan izan arren egoitza nagusia Bilbon duen enpresa bateko goi kargu batek halaxe esan zion Thomas Krensi, Solomon R. Guggenheim Foundationeko zuzendari nagusiari: kontuz ibil zedila Euskal Herriarekin eta Bilboko Guggenheim museoko buruekin hasitako harremanekin; etorkizunera begira ondo aukera zitzala bere lagunak. Izan ere, euskal enpresaburu eta azpikari politiko honen ustez, lehendakariak egindako proposamenaren ondoren, Euskadin gerraurreko egoera sortu zen eta etorkizunean zer gerta zitekeen ez zegoen jakiterik. Aznarren, eta oro har PPren, eta garai hartan ondoan zituenen botere guñeein lotura estua izan duen goi kargu horren lotsagabekeria eta maila moral baxua BBVAk egindako mehatxuei, Euskal Herritik alde egingo zuela esanez, edo Alerionen egoitza Madrilera aldatzearen zentzugabekeriari gehitu zaizkie.

Hauek dira zenbaitzuk hartu dituzten erabaki eta jarrerak. Erabaki horien inguruan PPK, PSE-EEk edo bere burua Ezker Abertzale izendatu duen taldeko buruek ez dute hitzik esan; eta jarrerak, bestalde, ekimen politiko eta demokratiko baten aurrean xantaia, mehatxua eta izen ona galaraztea nagusitzen direla argi utzi dute beste behin. Xantaia eta mehatxua, eskaintzeko ezer ere ez dutenen aldetik; eta izen ona galaraztea, berriz, soilik bide politikoen alde jokatzearabaki zutenean gizarte zati batek eskaini zien babes politikoa 1999az geroztik bertan behera uzten joan direnen aldetik.

Izan ere, hauek guztiek, modu batera edo bestera, arazoaren aurrean ez entzunarena egitea erabaki dute. PP eta PSErentzat arazoa ez dago; ez dute arazoa inon ikusten, alde guztietan begiratu arren eta proposatu eta aplikatzen dituzten neurriek —Batasunaren aurkako lege eta ekintzak, adibidez— Euskadik

bizi duen arazo larria areagotzeko baino balio ez duten arren. Ezker Abertzaleek, ostera, arazoa ikusi dute; edo, hobe esanda, gainerako alderdi politikoen arazoak. Lehen horien ustez, arazoa, edozein kasutan, besteek sortu duten baina eurak kaltetzen dituen sintoma bat baino ez da.

Eta horrela daude kontuak, bata eta besteak ederki asko jakin arren arazo bat ez dela konpontzen ez entzunarena eginez. Jarrera honekin gero eta handiago egitea baino ez da lortzen, azkenean itzuri ezineko eragozpena bihurtzera iritsi arte. Eta horixe da bakea Euskadin, komikietan agertzen den ikus-ameslari batek itzuri nahi duen eragozpena, honela

Herri oso bat suntsitu ahal izateko. Honela, ikus-ameslari honek Alderdi Sozialistak hamabost urte baino gehiagotz Euskal Herriarekiko bere ideietan oinarrituz maneatu duen jakiari azken ukitua eman dio; izan ere, alderdi horrek Euskal Herriarekiko izan duen jarrera desleialtasunean eta salerosketa politikoa oinarritu da hasiera-hasieratik; eskubidez euskaldunoi zegokigun hori salerosten saiatu baita, eta desleialki salerosten gainera. Eta halaxe izan zen Aznar etorri zen arte. Honek otsoa belarrietatik heldu zuen eta zera erabaki: estatutuen eta Euskal Herriaren autogobernuaren garapenari berak ikusten zuen modura aurre egitea, hots, Estatuaren aurkako, bere

Estatuaren aurkako mehatxua gisa. Eta horrela, gaur bizi dugun egoerara iritsi gara, Euskadiko autogobernua apropos, eta asmo txarrez, blokeatuta dagoen egoera honetara, gure garapenak oztopoak baino aurkitzen ez dituen egoera honetara. Metodo oro egokia eta ona da, euskal nazionalismoaren aurka airtzeko baldin bada. Arrazoi hauek guztiak bultzatuta, eta baita beste zenbaitek ere (nagusi, bakea lortzearen nahiak), lehendakariak proposamen hori egiteko erabakia hartu zuen, azken 23 urtetan Euskadin alderdi politiko orok eta herritar guztiek izan duten proposamen garbi eta sendoena dena; eta guztiok kontuan hartu behar duguna, espainiar edo euskal nazionalista izan. Ezker Abertzaleak inoiz izatea espero ez zuen proposamena du aurrean eta Espainiako Estatuak, berriz, printzipio edo legerik hausten ez duen ekimenarekin egin du topo. Eta honek biak biziki artegatzen dituela dirudi.

Proposamen hau era ezberdinetara defini daitekeen arren, nik bi hitz baino ez nituzke erabiliko: atxikimendu librea. Zer edo zer eraiki nahi badugu, atxikimendu librearen bidez bakarrik egin ahal izango da, bai Euskadin ezarri nahi dugun ereduaren kasuan, baita Estatuarekin lortu nahi ditugun harremanen kasuan ere. Hau erabakitzea, ordea, herritarren esku baino ez dago.

Laburbilduz, esku artean daukaguna bi jokalarari barneratzen dituen joko arauak dira, bi jokalarari horiek Euskadi eta espainiar estatua izanik, zeinak baldintza berdinetan aritu behar baitute. Hauen arteko erlazioak parekotasunean oinarritu behar du eta harreman, integrazio eta mendekotasun maila kasuak kasuan herritarrek erabakiko dute. Prozesu honetan zehar, euskal herritarrak behin, bitan, behar adina aldiz kontsultatu beharko dira; eta beraz, argi eta garbi dago edozer gerta daitekeela.



Ibarretxe, eragileei bere proposamena aurkeztu zienean.

## esaldiak

«Liburu bateko pertsonaia guztiak gizonezkoak badira, literatura unibertsala da, baina andrazkoak badira, literatura femeninoa»

**SONIA GONZALEZ**

(Idazlea)

«Berdintasunak on egiten dio gizonezkoen osasunari, goian irautea oso lan neketsua delako»

**LUIS BONINO**

(Psikiatra)

«Gaur egun ez dago emakumeen kontrako erasoei edo sexu jazarpenari aurre egiteko inolako politikarik»

**JOSUNE EROA**

(Bilgune Feministako bozeramailea)

«Zer da, gaur egun, familia bat? Garbigailu bera erabiltzen duen pertsona bat edo pertsona multzoa»

**ULRICH BECK**

(Soziologoa)